



*Etxe-aldatzea.*—Emaztiaren eriotz ostean, oso nai-gabetuta gelditu zan Martin jauna, Terese'ren aita. Gaxoak izan be edonor naigabetzeko lakoxe zartada artu eban biozpian. Zoritxar izugarriak atea jo eutson. Ama da sendian dana, batez be seme-alaba askodun sendian. Aitak ataldeko zeregin eta gañatzak begiratuko dauz. Aurtxoan ardurea emazteari dagokio. Martin jauna, bañiz, emazte barik, alargun aurkitzen zan. Arein azken-agur erdiragaña! Goikuak oñela gogo.

Odola erion zauri sakona agerkon biotz-mamiñean. Bakañik egoan, bost alabagaz. Oneitatik zañenak amasaspi ta gaztienak lau urte ta erdi ozta. Jaunaren eskue-tan ipiñi eban bere burua. Ta bere egitekorik beañez-koena alaba umezurtzen azkena zala-ta, ardura ta añeta osoa oñixeri ezañi eutson. Guraso gustiak orobat egingo ba lebe! Elitzake ainbat tentel eta kaskarin lur-iraitzean izango.

Baña lokun edo eginbear au zelan bete? Zein ete zan umezurtzen zoria? Adiskide askogana jo eban Martin jaunak aolku (konseju) eske. Batzuk, alabatxoak azten lagunduko eutsoela iñotzen; beste batzuk aztetxe batera eruateko; emengoak Alenzon bere ainbeste lagun kutun etzan luñaldea ez izteko; angoak au, ori ta bestea. Baña onu gusti oneik etxakozan atsegin izan. Eskeñak egiñik, danak uko ebazan, beste erabagi bat artuz. Emaztearen neba zan Gerin'dar Isidor'egaz gogoratu zan, eta aritxenera aldatzea eritxon ondoen. Emazteak be, iluñen, auxe iragañi ei eutson.

Au, Martin'i gustiz aldatz gora yakona, zan. Alenzon'

go zer gustiak itxi bear, nai ta nai ez. Onek ziztako gara-tza egozten eutsan biotzera. Eritxoari lotuta eukien lotz-kañiak eten beara eban. Gaztetandiko adiskide ortz-argiak, salerosketa, arazoak, aspaldiko ekanduak, ainbat urtez alabakaz atsedean egiten bastertu oi zan uda-etxe txanbeliña laga bear. Oraitiño gizon zirt edo zartekoa zan. Dana bertan bera itxi ta beste aterpe baten bila joan zan; bere alabak aziera egokia izan legikien toki-bila.

Bere koñetu Gerin'dar Isidor'i etxe eroso bat atondu-teko egindua emon eutsan, eta Azileko arasti itun barteian bultzian sartu ta Lisieux'erako bidean jañi zan Martin-sendi txikia. Geltokian egoan euren zain salburdi bat, osabearen etxera eroango ebazana. Bultzitik jastorduan, lagunik asko eukien, arituak iduri, eurai begi-zoliz adi. Gazte zoragañi ta txiripitin areik ikusiaz, batzuk iñoen: «Auxe bai sendi edeñ!» Soñeko baltzez jantzita oarturik, ixil-mixilka, «Neskatil gaxoak!» marmaratzen ebenak be, ba-ziran.

Ona zer diñoskun Terese'k aldaketa onetzaz:

«Alenzon izteak eninduan samindu; aldaketak eta gauza bañi gustiak poza emoten dautse umeai, alan, ba, pozañen Lisieux'eratu nintzan. Bidaldia eztot aitzu; gabez eldu gintzazan osabearen etxera, ta Jone ta Miren, neure lengosiñetxoak, oindiño ataurēan dakustaz, izekoagaz geure zain. A, nire biotzak zenbat eskar egin eutsozan gure senidoak agertu euskuen maitasunari!»

Ilunduta eldu ziran Lisieux'era, ta osabearenera joan ziran gaba emoten. Arera txeratsua egin eutsien osaba-izekoak. Biaramonean, Martin-sendian abegi onez artuko eban etxe alaya gertu egoan-eta, goxetik, eri-baratzak zearkatuz, «Sasitxo» eritxan auzoratu ziran. Toki auxē izango da auñerantzean euren biztoki.

SANTI, K. O.

(*Daraike*)